



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN / **BARAÑAINGO UDALA**

OFICINA ATENCIÓN CIUDADANA (OAC)/ **HERRITARRAK HARTZEKO BULEGOA**

Plaza Consistorial s/n - (31010 Barañáin) / Udaletxe plaza zk.g.

☎ 948 28 13 28 ✉ oaac@baranain.com / www.baranain.es / www.baranain.eus

TECNICO MUNICIPAL/ UDAL TEKNIKARIA

Lurgorri 12-14 (1ª planta Biblioteca Pública)

☎ 948 19 72 95 ✉ telecentro@baranain.com

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA FOMENTO DEL AUTOEMPLEO AÑO 2019 DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN

DEIALDIA, BARAÑAINGO UDALARENA, 2019an AUTOENPLEGUA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO

El Ayuntamiento de Barañáin, a través del Área de Formación, Empleo, Nuevas Tecnologías y Comercio, con el fin de apoyar y promocionar el fomento del autoempleo, establece la presente convocatoria con una dotación máxima de 35.000 €, de acuerdo a las siguientes bases:

Barañáingo Udalak, Prestakuntzako, Enpleguako, Teknologia Berrietako eta Merkataritzako Arloaren bitartez eta autoenplegua lagundu eta sustatu nahian, deialdi hau egin du urtean 35.000 euroko gehieneko diru-kopuruarekin, honako oinarri hauekin bat:

1.- OBJETO.

La presente convocatoria pública tiene por objeto establecer incentivos para el fomento de creación de iniciativas a través del autoempleo, apoyando la puesta en marcha de iniciativas innovadoras y de todo tipo. Estas ayudas se aplicarán a las acciones subvencionables que se realicen desde el 1 de diciembre de 2018 hasta el 30 de noviembre de 2019 en las siguientes líneas:

1.- XEDEA.

Deialdi publiko honek autoenpleguaren bidezko ekimenak sustatu nahi ditu, eta edozein motatako ekimen berritzaileak abiarazten lagundu. Diru-laguntza hauek aplikatuko zaizkie diru-laguntza jaso dezaketek ekintzei, 2018ko abenduaren 1etik 2019ko azaroaren 30era bitarte egiten badira, honako bi lerro hauetan:

Línea 1 "Empléate": Ayuda al establecimiento por cuenta propia.

Línea 2 "Tutélate": Ayuda para la asistencia y asesoramiento individualizado y planes de viabilidad. La asistencia técnica deberá ser recibida y desarrollada íntegramente dentro de los doce meses posteriores al alta en el Régimen Especial de Autónomos/as (RETA).

- Asistencia y asesoramiento individualizado para mejorar el desarrollo de la actividad profesional para la consolidación de las nuevas empresas, en ámbitos como la diferenciación del negocio, gestión económico-financiera, fiscalidad, redes de contactos y mejora de las capacidades emprendedoras, etc...
- Elaboración de un Plan de Viabilidad. Documento que permite al /la emprendedor/a evaluar la rentabilidad económica de su proyecto.

1. lerroa: "Enplega zaitez": Laguntza norberaren kontura ezartzeko.

2. lerroa "Izan tutoretza": Banan-banako laguntza eta aholkularitza, eta bideragarritasun-planak. Laguntza teknikoa oso-osorik jaso eta garatu beharko da langile autonomoen araubide berezian (RETA) alta eman ondorengo hamabi hilabeteen barnean.

- Laguntza eta aholkularitza jardura profesionalaren garapena hobetu eta enpresa berriak sendotzeko, besteak beste, honako esparru hauetan: negozioaren bereizkuntza, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa, fiskalitatea, harreman-sareak, ekintzaitetza-gaitasunak hobetzea...
- Bideragarritasun-plan bat egitea. Dokumentu horrek bere proiektuaren errentagarritasun ekonomikoa ebaluatzeko aukera ematen dio ekintzaileari.

2.- FINANCIACIÓN.

La financiación durante el año 2019 para atender la subvención que regula esta convocatoria, se hará con cargo a la partida (21 24191 47000, dotada con 35.000 euros) para la **línea 1 "Empléate"** y para la **línea 2 "Tutélate"**. Las ayudas que se concedan serán reconocidas hasta el límite del crédito disponible en la aplicación presupuestaria citada.

Para poder acceder a la **Línea 2 "Tutélate"**, será requisito indispensable ser beneficiario/a de las ayudas reconocidas de la **Línea 1 "Empleate"**.

2.- FINANTZAKETA.

Deialdi honek arautzen duen diru-laguntzari erantzuteko 2019ko finantzaketa **"Enplega zaitez"** **1. lerroko** eta **"Izan tutoretza"** **2. lerroko** prestatutako 21 24191 47000 partidaren kargura eginen da (35.000 eurokoa da). Ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa aipaturiko aurrekontu-aplikazioan erabilgarri dagoen kredituaren mugara bitartekoa izanen da.

"Izan tutoretza" **2. lerroa** eskuratu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izanen da **"Enplega zaitez"** **1. lerroan** aitortutako laguntzen onuraduna izatea.



3.- BENEFICIARIOS/AS DE LAS AYUDAS.

Podrán ser beneficiarios/as de las ayudas establecidas en las presentes bases reguladoras las personas **trabajadoras autónomas**, siempre que las subvenciones se soliciten a título personal. Si el posible beneficiario/a forma parte de algún tipo de **sociedad**, bien sea irregular, responsabilidad limitada, cooperativa, etc., deberá aportar acta de constitución de la sociedad donde conste el número de socios/as y su representatividad.

Para poder acceder a la subvención se deberá alcanzar una facturación proporcional trimestral mínima de 2.000,00 €. (IVA excluido). El cálculo anterior se hará multiplicando la facturación trimestral de la sociedad por el % de participación del solicitante en la misma, de forma que si el resultado es inferior a los citados 2.000,00 € ese trimestre no se percibe la parte proporcional de la subvención concedida.

No obstante lo anterior y con carácter excepcional durante el primer trimestre se establece un mínimo de 1.500 € de facturación (IVA excluido) para poder cobrar la ayuda correspondiente que en todo caso será prorrateada. El prorrateo, es la **distribución proporcional** de la cuantía prevista en partes:

- Ej. Facturación en el 1º trimestre de 2.000 € (IVA excluido): recibe una ayuda de 600 € (100%)
- Ej. Facturación en el 1º trimestre de 1.600 € (IVA excluido): recibe una ayuda de 480 € (80%)

Pueden solicitar la subvención con cargo a la presente convocatoria las personas que hayan **comenzado la actividad** empresarial en Barañain (desde el 1 de diciembre de 2018 hasta el 30 de noviembre de 2019), y que reúnan los siguientes requisitos, que deberán mantener durante los ejercicios económicos para los que se concede la subvención:

- Estar empadronado/a en el Municipio de Barañain, además de dar de alta la empresa o adquirirla mediante un traspaso (desde el 1 de diciembre de 2018 hasta el 30 de noviembre de 2019).
- Establecerse como trabajador/a autónomo/a dándose de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas de Barañain y en el Régimen Especial de la Seguridad Social como autónomo/a.

3.- DIRU LAGUNTZEN ONURADUNAK

Oinarri arautzaile hauetan ezarritako diru-laguntzen onuradunak **langile autonomoak** izanen dira, baldin eta diru-laguntzak beren izenean eskatzen badituzte. Onuradun izan daitekeena **sozietate** irregular, erantzukizun mugatuko, kooperatiba edo gisako sozietate bateko partaidea bada, hura eratu zeneko akta aurkeztu beharko du, bazkide kopurua eta haien ordezkagarritasuna jasotzen dituen.

Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez 2.000,00 €-ko fakturazio proporcionala lortu beharko da hiruhilekoan. (BEZa kanpo). Aurreko kalkulua lortzeko, sozietatearen hiruhileko fakturazioa biderkatuko da eskatzaileak hartan duen partaidetzaren ehunekoaz; horrela, emaitza 2.000,00 € horien azpitik badago, hiruhileko horretan ez da jasoko emandako diru-laguntzaren parte proporcionala.

Aurrekoa gorabehera, eta salbuespen gisa, lehen hiruhilekoan gutxienez 1.500 €-ko (BEZa kanpo) fakturazioa ezartzen da diru-laguntza jasotzeko, zeina betiere hainbanatu egingen baita. Hainbanaketa aurreikusitako zenbatekoa zatitan **proporzionalki banatzea** da:

- Adib. 1. hiruhilekoan, 2.000 €-ko (BEZa kanpo) fakturazioa: 600 €-ko laguntza jasoko du (% 100)
- Adib. 1. hiruhilekoan, 1.600 €-ko (BEZa kanpo) fakturazioa: 480 €-ko laguntza jasoko du (% 80)

Diru-laguntza eskatu ahalko dute deialdi honen kargura, enpresa **jarduera Barañainen abiatu duten** pertsonak (2018ko abenduaren 1etik hasita 2019ko azaroaren 30era arte), honako baldintza hauek betetzen eta mantentzen badituzte, diru-laguntzaren xede diren ekitaldi ekonomikoetan:

- Barañaingo Udalerrian errolatuta egotea, eta horretaz gainera, enpresari alta ematea edo eskualdaketa bidez eskuratzea (2018ko abenduaren 1etik hasita 2019ko azaroaren 30era arte).
- Langile autonomo gisa lan egiten hasi eta Barañaingo jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta ematea eta Gizarte Segurantzako araubide berezian autonomo gisa kidetzea.



- No hallarse en ninguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Asimismo de acuerdo al punto 2.e) del referido artículo 13 los/as beneficiarios/as deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de todas sus obligaciones tributarias, debiendo aportar certificados de Hacienda Tributaria y del Ayuntamiento de Barañain sobre esta situación.
- Estar al corriente de las obligaciones fiscales y de Seguridad Social, acreditándolo mediante las oportunas certificaciones (Hacienda Foral y Seguridad Social). En el caso de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Barañain se comprobará de oficio, haciendo constar dichas circunstancias mediante la oportuna diligencia. Así mismo, previamente a la propuesta de concesión, se comprobará de oficio que no tiene cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal.
- En el caso de que se disponga de local comercial se deberá contar con todos los permisos y licencias necesarios para el desarrollo de la actividad.
- En el supuesto que deje de desempeñar la actividad empresarial por la que se le ha concedido la subvención, el sujeto tendrá que informar al ayuntamiento mediante instancia en el registro del "fin de la actividad", indicando las causas. Estas se valoraran a efectos de exigencia o no del reintegro de la subvención recibida.
- Ez egotea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekuetako batean ere. Halaber, delako 13. artikularen 2.e) puntuarekin bat, onuradunek eguneraturik izan beharko dituzte beren zerga betebeharrak guztiak; hori frogatzeko, Zerga Ogasunaren eta Barañaingo Udalaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteak izatea. Horretarako behar diren ziurtagiriak aurkeztuko dituzte (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak). Barañaingo Udalarekiko zerga-betebeharrei dagokienez, ofizios egiaztatuko da bete direla, eta dagokion eginbidean jasoko da hala dela. Era berean, diru-laguntza emateko proposamena egin aurretik, ofizios egiaztatuko da ez dagoela Udal Diruzaintzari ordaindu beharreko zenbatekorik.
- Merkataritza-lokala badu, jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak izan beharko ditu.
- Diru-laguntzaren xede izan den enpresa-jarduera uzten badu, Udalari jakinarazi beharko dio, erregistroan "jardueraren amaieraren" eskabidea aurkeztuz. Agiri horretan, horretarako arrazoiak adieraziko ditu eta Udalak horiek baloratuko ditu, jasotako diru-laguntza itzuli beharko duen ala ez erabakitzeko.

Exclusiones. Las ayudas previstas en esta convocatoria no se aplicarán a:

Salbuespenak. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez zaizkie hauei aplikatuko:

- Sociedades públicas y Entidades de Derecho Público.
- Fundaciones, Centros Tecnológicos, Colegios Profesionales y Asociaciones.
- Trabajadores/as autónomos/as que hayan estado de alta en el censo de autónomos/as en la misma actividad económica y/o mismo o similar epígrafe del Impuesto de Actividades Económicas en los doce meses inmediatamente anteriores al inicio de la actividad.
- Sociedades y/o personas autónomas se les haya concedido dicha subvención en años precedentes.
- Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.
- Fundazioak, teknologia-zentroak, lanbide-elkargoak eta elkarteak.
- Langile autonomoak, autonomoen erroldan alta emanik egon badira Jarduera Ekonomikoen Zergako epigrafe berean edo antzekoan, jarduera hasi aurreko azken hamabi hilabeteetan.
- Diru-laguntza aurreko urteetan jaso duten sozietateak eta/edo langile autonomoak.



AYUNTAMIENTO DE BARAÑAIN / BARAÑAINGO UDALA

4.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.

Las solicitudes y los anexos de esta convocatoria están disponibles en la página web del Ayuntamiento: www.baranain.es. Las solicitudes deberán presentarse en los modelos normalizados junto con la documentación que figure en el reverso del impreso de solicitud. El Ayuntamiento de Barañain podrá recabar la información complementaria que estime necesaria para la adecuada valoración y resolución de la solicitud presentada.

Las solicitudes se presentarán en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Barañain, dirigidas al Área de Formación, Empleo, Nuevas Tecnologías y Comercio, **finalizando el plazo a las 14 horas del día 7 de Diciembre de 2019.**

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Deialdi honetako eskabideak eta eranskinak Udalaren webgunetik eskuratzen ahal dira: www.baranain.eus Eskabideak eredu normalizatuetan aurkeztu beharko dira, eskabide-orriaren atzeko aldean agertzen diren agiriekin batera. Aurkezten den eskaera behar bezala baloratu eta ebazteko, Barañaingo Udalak behar dituen argibide osagarri guztiak eskatzen ahalko ditu.

Eskabideak Barañaingo Udalaren Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztuko dira, Prestakuntzako, Enpleguako, Teknologia Berrietako eta Merkataritzako Arloari zuzenduta. **Epea 2019ko abenduaren 7an bukatuko da, 14:00etan.**

OFICINA ATENCIÓN CIUDADANA (OAC)/ HERRITARRAK HARTZEKO BULEGOA

Plaza Consistorial s/n, 31010 Barañain (Navarra)/ Udaletxe plaza zk.g., 31010 Barañain (Nafarroa)

☎ 948 281 328 / ✉ oac@baranain.com

El plazo de presentación de las solicitudes de ayudas finalizará en todo caso a las 14 horas del día 7 de diciembre de 2019. Será causa de denegación de la subvención la presentación de la solicitud fuera de los plazos anteriormente establecidos.

La **solicitud** irá acompañada de los siguientes datos y documentos:

- Datos de quien presenta la solicitud: NIF, nombre o razón social, cargo, domicilio, localidad, código postal, forma de contacto (teléfono, correo electrónico), cuenta de cotización seguridad social, tipo de actividad (Código y denominación) y datos persona para posibles aclaraciones.
- Acta o escritura de constitución de sociedad, si corresponde, donde se acredite el número de socios/as de la misma y su porcentaje de participación o representación.
- Certificados que el **Ayuntamiento de Barañain** comprobará de oficio:
 - ✓ Empadronamiento de persona solicitante.
 - ✓ Alta en Impuesto Actividad Económica (IAE).
 - ✓ Obligaciones fiscales y que no tiene cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal
 - ✓ En el caso de que disponga de local comercial se comprobará igualmente que dispone de todos los permisos y licencias necesarias para el desarrollo de la actividad. Entendiéndose a todos los efectos que el "inicio de la actividad" no será en ningún caso, anterior al otorgamiento de dichos permisos y licencias

Beti ere, laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 7an bukatuko da, 14:00etan. Diru-laguntza ukatuko da eskabidea arestian ezarritako epeetatik kanpo aurkezten bada.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- Eskabidea aurkezten duenaren datuak: IFZ, izena edo sozietatearen izena, kargua, helbidea, herria, posta kodea, harremanetan jartzeko modua (telefonoa, helbide elektronikoa), gizarte segurantzako kotizazio-kontua, jarduera mota (kodea eta izena) eta datu pertsonalak, zalantzak egonez gero haiek argitzeko.
- Sozietatea eratu zeneko akta edo eskritura, hala badagokio, haren bazkide kopurua eta bakoitzaren partaidetza edo ordezkaritza portzentajea egiaztatzen dituenak.
- **Barañaingo Udalak** ofizioz egiaztatuko dituen ziurtagiriak:
 - ✓ Eskatzailea erroldatuta dagoela.
 - ✓ Alta Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan (JEZ).
 - ✓ Zerga-betebeharrak, bai eta Udal Diruzaintzan ordaindu gabeko zenbatekorik ez izatea ere.
 - ✓ Merkataritza-lokala badu, egiaztatu egingen da jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak dituela. Ulertuta, ondorio guztietarako, "jardueraren hasiera" ez dela izango baimen eta lizentzia horiek guztiak jaso baino lehenagokoa.



- Certificados emitidos por la **Tesorería General de la Seguridad Social** a solicitar:
 - ✓ Alta en Régimen Especial de Autónomo/a.
 - ✓ Vida Laboral.
 - ✓ Al corriente de las obligaciones fiscales.
- Certificado emitido por **Hacienda Foral de Navarra** a solicitar:
 - ✓ Al corriente de las obligaciones fiscales.
- ANEXO I. Declaración sobre las exclusiones establecidas en las bases de la Convocatoria.
- ANEXO II. Declaración sobre los requisitos de los/as beneficiarios/as establecidos en las bases de la Convocatoria.
- ANEXO III. Solicitud de abono por transferencia.
- **Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak** jaulki beharreko ziurtagiriak, eskatuko baitira:
 - ✓ Alta Autonomoen Araubide Berezian.
 - ✓ Lan-bizitza.
 - ✓ Zerga-betebeharrak ordainduak izatea.
- **Nafarroako Foru Ogasunak** jaulki beharreko ziurtagiriak, eskatuko baitira:
 - ✓ Zerga-betebeharrak ordainduak izatea.
- I. ERANSKINA. Adierazpena, deialdiko oinarrietan ezarritako salbuespenen gainekoa.
- II. ERANSKINA. Adierazpena, onuradunen betebeharrei buruzkoa, zeinak deialdiko oinarrietan ezarrita baitaude.
- III. ERANSKINA. Eskuera, transferentzia bidezko ordainketa egiteko.

La documentación será original o fotocopia compulsada. Se concederá a las personas solicitantes un plazo máximo de 10 días, a partir del día siguiente a la notificación, para presentar aquella documentación omitida o para subsanar el defecto presentado. En el caso de que no lo hubieran hecho, una vez transcurrido este plazo, se tendrá por desistida la petición.

5.- VALORACIÓN.

La "Junta de Gobierno Local" estudiará y resolverá el expediente de solicitud previo informe técnico emitido por los servicios técnicos del Área de TIC-Telecentro, Comercio y Empleo y previa fiscalización del gasto por la Intervención del Ayuntamiento. Posteriormente se informará en comisión de "Servicios Generales, Nuevas Tecnologías, Comercio y Empleo" sobre la aprobación y/o denegación.

La Junta de Gobierno dictará y notificará resolución en el plazo máximo de dos meses a contar desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro del órgano competente para su tramitación. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado resolución expresa, podrá entenderse desestimada por silencio administrativo la solicitud presentada.

Agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izanen dira. Eskatzaileei 10 eguneko epea emanen zaie gehienez, jakinarazi eta biharamunetik aitzina, falta diren agiriak aurkeztu eta egindako akatsak zuzentzeko. Halakorik egin ez badute, eta epea iraganik, ulertuko da uko egin diotela eskaerari.

5.- BALORAZIOA

Tokiko Gobernu Batzarrak espedientea aztertu eta ebatziko du, Prestakuntza, Enplegua, Teknologia Berriak eta Merkataritzaren Arloko zerbitzu teknikoek jaulkitako txostenaren ondotik eta, orobat, Udaleko Kontu-hartzaileak gastua fiskalizatu eta gero. Gero, Zerbitzu Orokorreko, Teknologia Berrietarako, Merkataritzako eta Enpleguko Batzordeak adieraziko du hura onetsi/ezetsi ote den.

Gobernu Batzarrak gehienez ere bi hilabeteko epean erabaki eta jakinaraziko du ebazpena, eskabidea tramitzeko eskumena duen organoan hura sartu den egunetik zenbatzen hasita. Ezarritako epea espresuki emandako ebazpenik jakinarazi gabe bukatzen bada, ulertzen ahalko da aurkeztutako eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez ezetsi dela.



6.- CONCESIÓN.

LÍNEA 1 "EMPLEATE"

El procedimiento de concesión de las subvenciones establecidas en esta convocatoria, que se tramitarán en régimen de evaluación individualizada, se ajustará a lo establecido en estas bases reguladoras. Se concederá una única ayuda para los adjudicatarios/as de la presente convocatoria, concediéndose una subvención por el año de **2.400 euros** (por socio/a o por autónomo/a solicitante).

Los periodos subvencionables coincidirán con los trimestres naturales, y el plazo de concesión comenzará en el primer trimestre entero posterior a la fecha de presentación de la solicitud.

Ejemplo:

- | | |
|----------------------------------|---------------|
| - Inicio de la actividad..... | 15 marzo 2019 |
| - Solicitud al Ayuntamiento..... | 17 marzo 2019 |

- | | |
|------------------------------------|--------------|
| - 1º periodo subvencionado: | 1º Trimestre |
| (Abril/Mayo/Junio) 2019 | |
| - 2º periodo subvencionado: | 2º Trimestre |
| (Julio/Agosto/Septiembre) 2019 | |
| - 3º periodo subvencionado: | 3º Trimestre |
| (Octubre/Noviembre/Diciembre) 2019 | |
| - 4º periodo subvencionado: | 4º Trimestre |
| (Enero/Febrero/Marzo) 2020 | |

Se abonará la subvención concedida trimestralmente, a plazo vencido, previa presentación trimestral de la siguiente información para **justificación trimestral** que debe acompañarse de instancia una vez aprobada la solicitud:

- Certificado emitido por la Tesorería General de la Seguridad Social: Al corriente de obligaciones fiscales.
- Certificado emitido por Hacienda Foral de Navarra: Al corriente de las obligaciones fiscales.
- Certificados emitidos por Entidad Financiera: Comprobante de pago de las 3 cuotas de autónomo/a (Trimestral), por los 12 meses subvencionados.
- Justificación de facturación mínima de 2.000 euros trimestrales (IVA excluido).

6. DIRU LAGUNTZAK EMATEA.

1. LERROA "ENPLEGA ZAITEZ"

Deialdi honetan ezartzen diren diru-laguntzak emateko prozedura oinarri arautzaile hauetan ezarritakoari lotuko zaio, eta bana-banako ebaluazio araubidean tramitatuko dira laguntzak. Deialdi honetako esleipen-hartzaileentzako laguntza bakarra emanen da, urtean **2.400 euro** emanaz (eskatzaile autonomo edo sozietate bakoitzeko).

Diruz lagunduko diren aldiak bat etorriko dira hiruhileko naturalekin, eta eskabidea aurkeztu den dataren ondoko lehen hiruhileko osoan hasiko da hura emateko epea.

Adibidez:

- | | |
|----------------------------|-----------------------|
| - Jardueraren hasiera... | 2019ko martxoaren 15a |
| - Udalari eskaera noiz.... | 2019ko martxoaren 17a |

- | | |
|---------------------------------|----------------|
| - Diruz lagundutako 1. Aldia: | 1. hiruhilekoa |
| (Apirila/Maiatza/Ekaina) 2019 | |
| - Diruz lagundutako 2. Aldia: | 2. hiruhilekoa |
| (Uztaila/Abuztua/Iraila) 2019 | |
| - Diruz lagundutako 3. Aldia: | 3. hiruhilekoa |
| (Urria/Azaroa/Abendua) 2019 | |
| - Diruz lagundutako 4. Aldia: | 4. hiruhilekoa |
| (Urtarrila/Otsaila/Martxo) 2020 | |

Diru-laguntza hiru hilekoan behin ordainduko da, epea bukatuta, baina aurretik honako informazio hau aurkeztu beharko da hiru hilean behin **hiruhileko justifikazioa** egiteko; eskabidea ere egin beharko da diru-laguntza onetsi eta gero:

- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak jaulkitako ziurtagiria: Zerga-betebeharrak ordainduak izatea.
- Nafarroako Foru Ogasunak jaulkitako ziurtagiria: Zerga-betebeharrak ordainduak izatea.
- Finantza-entitate batek jaulkitako ziurtagiriak: Autonomoaren 3 kuoten ordainagiria (hiruhilekoa), diruz lagundutako 12 hilabeteenak.
- Hiruhilekoan gutxienez 2.000 euro fakturatu direlako justifikazioa (BEZa kanpo).



AYUNTAMIENTO DE BARAÑAIN / BARAÑAINGO UDALA

OFICINA ATENCIÓN CIUDADANA (OAC)/ HERRITARRAK HARTZEKO BULEGOA

Plaza Consistorial s/n - (31010 Barañain) / Udaletxe plaza zk.g.

☎ 948 28 13 28 ✉ oac@baranain.com / www.baranain.es / www.baranain.eus

TECNICO MUNICIPAL/ UDAL TEKNIKARIA

Lurgorri 12-14 (1ª planta Biblioteca Pública)

☎ 948 19 72 95 ✉ telecentro@baranain.com

Si un trimestre no se justifica la facturación mínima de 2.000 euros trimestrales, ese trimestre el/la solicitante no percibe y no recupera la parte proporcional a los **2.400 euros concedidos para un año**. En ese caso, el Ayuntamiento de Barañain puede disponer de dicha cantidad no abonada para reinvertirlo en la bolsa. No obstante lo anterior habrá de estarse igualmente a lo establecido con carácter excepcional para el 1º trimestre en el punto 3 de las bases "Beneficiarios/as de las Ayudas".

La cuantía concedida se abonará, salvo en casos excepcionales que determine el órgano competente, en cuatro plazos (4 trimestres). Las personas solicitantes podrán ser requeridas para cuantas aclaraciones sean solicitadas por el Ayuntamiento de Barañain. Previo al abono de la subvención el beneficiario/a deberá justificar el cumplimiento de los requisitos establecidos y haber realizado la actuación que fundamente la concesión de la subvención. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto el beneficiario/a no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. La aprobación de cualquiera de estas medidas subvencionables será compatible con otras subvenciones.

Las subvenciones se concederán hasta agotar la partida presupuestaria establecida, y las solicitudes se resolverán conforme al orden de llegada y registro de las mismas en la "Oficina de Atención al Ciudadano" del Ayuntamiento de Barañain (OAC).

LÍNEA 2 "TUTELATE"

La cuantía de esta subvención, que se concederá de una sola vez, será de hasta el 100 por ciento del coste de los servicios prestados, con un máximo de **500 euros para un año** por solicitante (sociedad unipersonal) o sociedad. En todo caso se excluye el IVA recuperable. Se abonará la subvención concedida previa presentación de factura y de su comprobante de pago.

Las subvenciones con cargo a esta línea se concederán igualmente hasta agotar la partida presupuestaria establecida, y las solicitudes se resolverán conforme al orden de llegada y registro de las mismas en la "Oficina de Atención al Ciudadano" del Ayuntamiento de Barañain (OAC).

El periodo para justificar comenzará en el momento de constituir la empresa y finalizará un año después.

Hiruhileko batean ez bada justifikatzen gutxieneko 2.000 euroko fakturazio hori, eskatzaileak hiruhileko horretan ez du jasoko laguntzarik eta ez du berreskuratuko **urte baterako emandako 2.400 euroen** zati proportzionala. Kasu horretan, Barañaingo Udalak, hala nahi izanez gero, ordaindu ez den zenbateko hori erabil dezakeen berriz ere poltsan berrinbertitzeko. Aurrekoa gorabehera, kontuan hartu beharko da, orobat, oinarrien 3. puntuko "Laguntzen Onuradunak" atalean 1. hiruhilekorako salbuespen gisa ezarritakoa.

Emandako zenbatekoa ordainduko da, eskumena duen organoak zehaztutako salbuespenetan izan ezik, lau epetan (4 hiruhileko). Barañaingo Udalak nahi adina azalpen eskatzen ahalko die eskatzaileei. Diru-laguntza ordaindu aurretik, onuradunak ezarritako baldintzak bete direla justifikatu beharko du, eta frogatu beharko du diru-laguntzaren xedea zen jarduketa egin duela. Diru-laguntza ezin izango da egin onuradunak ez baditu eguneratuak bere zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzakoak. Diruz lagundu daitezkeen neurri hauen onspena bateragarria izanen da beste diru-laguntza batzuekin.

Diru-laguntzak emanen dira ezarritako aurrekontuko partida agortu arte, eta eskabideak ebatziko dira Barañaingo Udalaren HHBra (Herritarrak Hartzeko Bulegoa) iritsi eta erregistratzen diren ordenari jarraituz.

2. LERROA "IZAN TUTORETZA"

Diru-laguntza horren zenbatekoa, zeina dena batera emanen baita, emandako zerbitzuen ehuneko 100era bitartekoa izan daiteke; gehienez ere **500 euro emanen dira urtebeterako** eskatzaileko (persona bakarreko sozietatea) edo sozietateko. Betiere BEZ berreskuragarria kanpoan gelditzen da. Emandako diru-laguntza ordaindu baino lehen, faktura eta ordainketaren egiaztagiria aurkeztuko dira.

Lerro horren diru-laguntzak ere ezarritako aurrekontuko partida agortu arte emanen dira, eta eskabideak ebatziko dira Barañaingo Udalaren HHBra (Herritarrak Hartzeko Bulegoa) iritsi eta erregistratzen diren ordenari jarraituz.

Justifikatzeko aldia enpresa eratzen den unean hasiko da, eta urtebete geroago bukatuko da.



7.- OBLIGACIONES.

Los/as beneficiarios/as de la subvención están obligados a mantener y justificar la actividad durante un año. Se abonará la subvención concedida trimestralmente a contar desde la fecha de la resolución, a plazo vencido, previa presentación de seguir al corriente del pago en la Seguridad Social y el IAE; y justificar la facturación establecida de 2.000 euros trimestrales (por socio/a o por autónomo/a solicitante), mediante la declaración de IVA, cantidad que, de forma excepcional para el 1º trimestre, tal y como se recoge en el punto 3 de las bases "Beneficiarios/as de las Ayudas", será como mínimo de 1.500 euros.

En caso de estar exento de IVA, o facturar por módulo, la facturación se acreditará mediante la presentación de las facturas simplificadas o cualquier otro medio aceptado en derecho.

Asimismo deberán comunicar cualquier eventualidad en el desarrollo de la actividad subvencionada en el momento que aquélla se produzca. En el supuesto que no se mantenga la actividad durante el tiempo exigido, deberá notificar al Ayuntamiento mediante instancia, la fecha fin de la actividad. En este caso, no se le exigirá la devolución de lo percibido hasta ese momento. Tampoco podrá volver a solicitar la subvención restante en el caso que la vuelva a desarrollar.

El incumplimiento de cualquiera de las bases de esta convocatoria, así como el de la no presentación de los documentos solicitados en los plazos indicados, o la detección de alguna irregularidad sustancial en la documentación presentada por parte del solicitante o empresa, se podrá dar lugar por parte del órgano competente a la revocación de la subvención y el reintegro de las cuantías recibidas.

El Ayuntamiento de Barañain podrá recabar la información complementaria que estime necesaria para la adecuada valoración y resolución de la justificación presentada.

8.- INCUMPLIMIENTO.

La presente convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa: Ley Foral de la Administración Local de Navarra, Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra, Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria, Normativa estatal sobre subvenciones.

7.- BETEBEHARRAK.

Diru-laguntzen onuradunak beharturik daude jarduera urtebetez mantendu eta justifikatzera. Diru-laguntza hiru hilekoan behin ordainduko da, epea bukatuta, baina aurretik honako informazio hau aurkeztu beharko da: Gizarte Segurantzako eta JEZeko ordainketak eguneratuak daudela frogatzen duen agiria; eta hiruhilekorako ezarritako 2.000 euroko fakturazioaren justifikazioa (bazkide edo autonomo eskatzaile bakoitzeko), BEZaren aitortpenaren bidez; zenbateko hori, salbuespenezko moduan 1. hiruhilekorako, 1.500 eurokoa izanen da, oinarrien "Laguntzen Onuradunak" 3. atalean jasotzen den bezala.

BEZa ordaintzetik salbuetsita izanez gero, edo modulu bidez fakturaturik gero, fakturazioa frogatzeko, faktura sinplifikatuak edo Zuzenbideak onartutako beste edozein bitarteko erabil daiteke.

Orobat, diruz lagundutako jardueran gertatzen den edozein gorabeheraren berri emanen dute, hura gertatzen den unean bertan. Ez baldin badu jarduera horrekin jarraitzen ezarritako epe horretan, Udalarik jakinaraziko dio jardueraren bukaera eguna, eskabidea aurkeztuz. Kasu horretan, ez da ordura arte jasotakoa itzultzeko eskatuko. Era berean, ezin izanen du diru-laguntza berriz eskatu hura berriro garatzen badu.

Deialdiaren oinarrietako bat betetzen ez bada edo eskatutako agiriak zehaztutako epeetan aurkeztu ez badira, edo garrantzizko irregulartasunik atzematen bada eskatzaileak edo enpresak aurkeztutako dokumentazioan, organo eskudunak diru-laguntza ezeztatu ahalko du eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

Barañaingo Udalak eska/lortu dezake informazio osagarria, aurkeztutako justifikazioa egoki balioztatzeko eta ebazteko beharrezkoa deritzona.

8.- BALDINTZAK EZ BETETZEA.

Deialdi hau agiri honetan bildutako arauak jarraikiz egiten da eta aurreikusten ez den orotan, berriz, hurrengo araudian ezarritakoari jarraituz: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea eta, ordezkotza gisa, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzko Estatuko araudia.



9.- RECURSOS.

Frente a las presentes bases y los actos en ejecución de las mismas se podrán interponer los siguientes recursos:

- 1.- Dentro del mes siguiente a la notificación y con carácter potestativo, el de Reposición, ante el órgano municipal autor del mismo (Ley 39/2015, de 1 de octubre); si se presenta recurso de reposición, no se pueden interponer el de alzada ni el contencioso administrativo, hasta que sea resuelto o desestimado presuntamente el primero. Contra la resolución de un recurso de reposición no podrá interponerse de nuevo dicho recurso.
- 2.- En el plazo de un mes desde la notificación y con carácter potestativo, el de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra (Ley Foral 6/1990, de 2 de julio). Si se presenta este recurso no se podrá interponer el contencioso administrativo hasta la resolución expresa o desestimación presunta del de alzada.
- 3.- En el plazo de dos meses, desde el día siguiente a la notificación, el Contencioso Administrativo ante el órgano competente de dicha jurisdicción (Ley 29/1998, de 13 de julio).

10.- PROTECCIÓN DE DATOS.

Responsable: Ayuntamiento de Barañain. Finalidad: Gestión de subvenciones. Legitimación: RGPD: 6.1.c) Tratamiento necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento. Artículo 23 y ss. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, artículos 16 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 151 y ss del Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales. Destinatarios: Cesiones obligadas por Ley. Derechos: Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional. Información adicional: La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos y Delegado de Protección de Datos está disponible en la sede electrónica de la Web municipal www.baranain.es

9.- ERREKURTSOAK.

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtsu hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

- 1.-Jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hilabetean eta aukeran, berraztertzea, hura egin zuen udal organoari zuzendua (urriaren 1eko 39/2015 Legea); berraztertze errekurtsua aurkezten bada, ezin da ez gora jotzekorik ez administrazioarekikorik aurkeztu, harik eta lehenbizikoa ebatzi edo ustez ezesten den arte. Berraztertze errekurtsuaren ebazpenaren kontra ezin izanen da errekurtsu hori bera berriz aurkeztu.
- 2.-Hilabeteko epean, jakinarazpenetik hasita, gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua (uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea). Errekurtsu hau aurkezten bada, ez da administrazioarekikorik aurkezten ahalko, harik eta gora jotzekoa ebatzi edo ustez ezesten den arte.
- 3.-Bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik, administrazioarekiko auzi-errekurtsua, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua (uztailaren 13ko 29/1998 Legea).

10.- DATUEN BABESA.

Arduraduna: Barañaingo Udala. Xedea: Diru-laguntzen kudeaketa. Legitimazioa: DBEO, 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta ondorengoak. 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua. Toki Entitateen Antolamenduari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 151. artikulua eta ondorengoak. Hartzaileak: Legeak derrigortutako lagatzeak. Eskubideak: datuen irispiderako, zuzenketarako eta horiek ezerezteko, baita informazio gehigarrian jasota dauden beste eskubide batzuk ere. Informazio gehigarria: datuen tratamenduetarako informazio gehigarria eta xehatua, eta Datuen Babeserako Ordezkarirena, eskura dago udalaren Web orriko egoitza elektronikoan: www.baranain.eus